


**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
83n. ZENBAKIA
ZEZEILLA
OTSAILLA
1985**



**BASELEIZAK BE APAINDU!
(Bediaga'ko Bixente Deuna)
(Zornotza'n)**

AZTI BAKALDUNEN ARRERA

AZTIAK ETA EDURRA

Beste urte askotan lez aurten be etorri ziran Azti Bakaldunak, bakaldun deunak gure lurraldera, Euzkadi'ra, euren jaiaren aurre-egunean eta, ikusle Deun orreik osperik audienak geure artean artzearren izan ba'litza lez edo, gure lurralde guztia zuriz jantzita zala arrera egin jaken, edur zuri-zuria barra-barra ortzitik, zerutik, jausten zala. Jazki benetan polita Urte-barriaren asiera, neguaren bijotzari asiera emoteko. Jantzi ori lodiago izan daiten edo lerro oneik idazten diardugun egun onetan edur zuriak geratu barik jausten jarraitzen dau.

* * *

GURE ARAZOAK

Gaiñean dogun jazki zuri orren lakoak, zuriak izatea nai gendun euzkotarron barrena estalduten edo orniduten daben eretxiak, jokabideak, alkarraganako begirune eta maitasuna Baiña, zoritxarrez ez da orretarikoaldi onetan Azti Bakaldunok zuriz jantzita aurkitu daben Euskadi, laiño baltzez murgilduta egonik azken-aldi onetan, ezin dogulako bide argirik ikusi euzko-anaiok eta batez be abertzaleok, geroago ta zakabanatuago egiten gaituen arazoak zuzentzeko. Tamalgarria benetan ainbat urte, ia irurogei urte, euzko abendaren azkatasun-alde geratu bagako burrukan, bareago edo gogorrigo, diardugunontzat.

* * *

NORBERA TA BESTEAK

Euzko edestiak diñozkun lez, euzkotarrok beti izan eiger burrukalariak, kementsuak geure lurraldeak menperatzeko asmoz atoanai aurrea emoteko, baiña, baita geie-

gi burrukalariak geure artean, norberaren eretxiak, besteenak aintzakotzat artu barik aldeztuteko. Eta jakiña! norberakeri orreik sarri-askotan zakabanaturik euki gaituen lez, une ori gozatu dabe betiko gure etsaiak, albo-erri menpetzalleak.

* * *

ZUZENDU-EZIÑIK

Lendiko asarre ta ulertu-ezin orreik kalterik asko ekarri ba'euskuen euzkotarro, or daukogu Euzkadi'ko Alderdirik audiena, zintzoena, abertzaleena Aberria'ren burujabetzaz zuzenen beti jokatu dauana, Euzko Alderdi Jeltzalea, aberkideen arteko eztabaidak zuzendu ezinda. Gure artean norberakeri geiegi sortu dalako? Geroago ta agindu-gura geiego dagolako edo aginduten diarduenak eskubide zabalagoak nai dabezalako? Txindi-zaletasun geiegi gure artean sortu dalako?

Baleiteke gure itaun orretariko zerbaitzuk orrelan izatea, baiña, geien bat izan leiteke gure etsaiak, menpetzalleak gure arten sarturik dabezan ziriak izatea, orain urte batzuk egin nai izan ebenez, ainbat milloi lauerleko eskuarte ebezala.

Egiz, gure lerro oneik argia ikusi dabeneko anai arteko eragozpen guztiok erabagiak ba'litzakez; ori izango litzake urte barri onek emongo leuskigun poztasunik audiena. Orretara izango alda.

Altuna'tar Josu

IDAZKOLAKOEN OARRA IRAKURLEAI

Gure ZER'en zenbaki onetan, Usansolo'ko Sariketearen idaz-lan sarituak argitaratzen doguz. 4n. orriletik 8n'era bitartean dagoz.

Ille batzuk dirala egin euskuen eskari au eta guk pozik onartu genduan. Gero lanak etorri diranean guztiak, ez dagozela gure idazte-arauen barruan ikusi dogu. Alan eta guzti be, olako uste barik baietza emonda egoan lez, argitaratu egiten doguz. Parkatu beiskue gure irakurleak eta jakin begie guk geure jokabidean zintzo ta sendo jarraitzen dogula. Aurrerantzean ez dogu argitaratzeko berbarik emongo, geure idazte-arauen barruan ez ba'dira.

ESKERRIK ASKO

ELERTIA AZTERTZEN ETA IRAKASTEN

Euzkadi ezagutzeko eta euskal-nortasuna, banakakoa naiz Erriarena, zelakoa dan jakiteko, iru ikasgai zabal dira guztiz bearrezkoak: Lutelestia edo jeografia, Kondaira edo istoria eta izkuntza ta elertia edo literatura. (Eta giro orretan eta zabalago, Antropolojia edo giza-iztia).

* * *

Begiratu dagiogun elertiaren sailleari.

Elertia ikasteko (edo irakasteko) lenengo izkuntzaren kondaira, batez be idatziarena azaldu ta jakin bear da: Akitania'ko itzetatik asi, Donemiliane'ko lenengo esaldiakaz jarraitu eta liburuakaz amaitu, Etxepare'rena lenengoa dala.

Or bitartean azaldu bearko da antziñakoak "ars poetica" esaten eutsoena edo idaz-lana egiteko zer egin bear dan: Asmau, eratu ata esan. Emen litzake idazkeran erabilten diran edergarriak azaltzeko ordua. Arlo onetan apaingarrien izenak eurak be zeintzuk aukeratu ez dago zeaztuta: "metafora" edo "alegoria" edo "retrukano" ta olakoak zelan esan, eta abar.

Elertiaren kondairaren zatiketea be ez dot uste ondo eginda daukagunik. Gitxiago aldi bakoitxaren berezitasunak zeintzuk diran. Ba-dago or zer-egin!

* * *

Nik zazpi aldi aundi ezarriko neukez: Erdi-aroa eta emen agozko elertia geiena, Berbizkundera edo "renacimientto" eta emen idazle zarrak, Larramenditarren giroa geienak euskarea erderaz goratzen dabela, Barrizkunde-aldia Arana ta Azkue nagusi dirala (aldi oneri Urre-Aldia esaten asi dira batzuk, baiña gure Urre-Aldia etorteko dagoala esan lei), Aitzol'en aldia edo guda-aurrea, Zaitegiren aldia edo guda-ostea, eta 1968'tik asi eta gaur-arte gaurko giroa Erribide ta Batu-Berri taldeak edo jokabideak nabarmen agiri dirala (Zubigille batzuk be or bitartean sartuta). Beste alde batetik, gure idazleak Europa'ko elertiaren aldiakaz dauken zer-ikusia be ez da aitzu bear: Erdi-Aroa, Berbizkundera, Barroko-aldia, Klasiku-aldi barria, erromantiku-aldia, errealismu-aldia eta geroago ugari datozen aldi laburrak: "ultraismo", "da-daismo", "parnasianismo" 27'ko gizaldia...

* * *

Arlo orreitako jakingarriak al danik ondoen ezagutu ondoren ikas-urtearen barruan liburu batzuk irakurri eta lan luzeak eurai buruz egin bear dira, gitxienez bi edo iru. Lan Luze oneik egiteko, ikasle bakoitxak liburuaren ikuspegi bat artzea ondo litzake, orrelan bakoitxaren lana ondo egiña izan ezkeru guztiak bateratuta liburuaren azterpen ederra egin eta azterpen-lanak taldean egiteko terbe-bidea eskuratzen da. Liburuari buruz aztertu daitekezen gai batzu oneik izan daitekez: Idazlea, Elerti-aldia, liburuaren aldia, tokia, edergarriak, iztegia, jostkerea, aditza, idazlea agertzea, erelejiñoa, elburua ta onen betetea, beste liburu batzukaz izan daiken zer-ikusia edo iturriak, euskaltasuna...

Orrez gaiñera gauza egokia litzake ikastaldi bakoitxaren azkenean, beti, azaldutako gaiari buruz bakoitxak nai dauan azalpena idaztea eta urrengo ikastaldian agertu diran okerrak guztien artean zuzentzea.

* * *

Lan luzeak beste ondoren bat eskatzen dau: Lana egin dauanak ikastaldian agoz azaldu dagiala bere lana labur-labur, orrelan agozko izkuntzari be indarra emoteko.

Eguneroko azalpenak zati oneik izan daikez: Idazle baten bizitza, giroa ta lanak eta beragandik aukeratu dan idatz-zatiaren azterpena, astiro ta ulertuz irakurri ondoren: Zatia nondix artua dan, zelakoa dan eritxi ta euskera alde-tik, erakundera, agerpena eta olerkia izan ezkeru bertsogintza (metrika).

Textu edo idazkiak aztertzeke erak be azaldu bear dira, baita era orreitara azterpenak egiteko bideetan ekin be.

Olako ikastaro batek euskal-pentsabideari osotasun aundia emoten dautso.

MARTIN ARRIZUBIETA, OLERKARI

Gizasemea.—Udabarriz zugatz-erpiñean erne dan ostoak ez daki, urteen gurpil eragiñez, zer izango dan bizitzan. Ezta gizasemeak be. Jaio, bizi ta il; or beronen zoria. Baiña nun eta zelan guzti ori; or ezkutua, aurretik iragarri eziña, bene-benetan. Ken txapela misterio aundi onen aurrean!

Gure —gizona bai!— Mundaka'n jaio zan, itxas-ertzeko uri polit aundiki-zalean. Urteak dirala, en 1909-9-8'an. Ni Martin baiño sei illabete zaarrago nozue, eta au diñotzuet, ordutik ona euri ugari jausi dala, ta munduak bere ibillien ainbat eta ainbat gauza ta jazoera ikusi ta bizi izan ditula.

Martin, gizaseme urduria dogu. Zelan ezagutzen ete? Nik igazko leen illetera arte ez neban arpegiz ezagutzen; kartaz eta idatziz bai, ostera. Eta grafologuak diñoenez, gizona arpegiz ezta be, izkiz eta letraz naikoa errez ezagutu geinke. Izakeraz zelakoa dan, batez be. Nik orrelaxe Martin, lenengotan, idatziz.

Baiña igaz —esan dot— arpegiz arpegi ta autu luzez. Neure VI'garren "Euskal Literatura"-reko datu billa urretaru nintzakon; ara Mundaka'ra, arratsalde eguzkitsu baten. Etxean aurkitzen zan. Ez geldi gero, bere liburu artean baiño. Nik arek lez esan neinke: "Nun obeto!"

Akeitz gozoa zurruputzen genduan bitartean, ekin eta ekin, amaika gauza ta auzi garrantzitsu baketurik geratu zan. Mundakar apaiz jakintsuaren bizitzea, izan be, gorabera, gertaldi ta milla ezustekoz jantzia dozu. Eta bere itzetorria, sekula agortzen eztan ur-sorburu jori oparotsu baten antzekoa. Autuan ez tartetu edozelan, berak iruntsiko zaitu itzetik ortzera. Orduak eta orduak igaro jakuzan konturatu orduko, etxerantz egiteko ordua zalakoaz gu jabetu giñaneko.

Ikasle ta argi agertu izan da nun-nai ta beti. Bere jaioterrian osotu zituan bere leen-ikasteak. Garai aretan berezko gaitasunai jantzi apaiña jarteko —eta goi-deiari erantzunik— apaiz-karrera artu eban, Durango'n, Komillas'en eta Lovaina'n ikasirik. Doktor titulua dauka Filosofian, eta Lizenziatura Sozial eta Politika Zientzian.

Ikasketak amaitu-barri egoan emengo guda zitala sortu zanean. Zurrunbillo orren naspillean larri, beste asko lez, Frantzia'ra jo eban. An be, baiña, ez ebazan izan estutasun bako egunak. Gosez eta aterpe barik sarri, iruultzaille lez egertu bait zan doitzarrakin batez be. Bost urte erre zituan Polonia'ko baitegi zelaietan. Ezin barruak ekarrena ixillik euki ta, jakiña, txibita gaiñetik azkar erabillia; Italia ta Frantzia zear, itzez ta egitez asalde-zale, urduri be urdiri...

Azkenez, ixilka, Euskalerriratu zan. Emen lanpostu bat nai, arima-zaintzan jarduteko. Etzan auzi erreza, edu orretako eliz-gizonak txarto ikusiak ziralako. Gurpide, Bilbo'ko gotzain zanaren denporan, Kordoba'ra joateko baimena lortu eban. An, Santa Marina parrokan, ogetabost bat urte egin zituan, eliz-arazotan, bertako txauburu zala.

Gaur bere errian, Mundaka'n daukagu, Jakintza-gaii ta euskereari lotua. Nik olantxe aurkitu neban igaz. Bere bizileku osoa, ez medarra gero, arasa, mai, jarleku ta abar, liburuz gaiñezka dauka. Gai guztietako liburuz, ain zuzen; baiña Filosofi-gaiak ditu eder eta atsegin Arrizubieta'k, beste gai guztien artean. Amesetan ditu, eta orretan diardu, euskerezo Filosofi-lan zabalak, oraindik, gauza aundirik beintzat, saratu barik daukaguzanak.

Gai ontaz, igazko karta baten iñostan: "Hainbat bider, behinola ere eskatu eustazun horrelako zer-edo-zer, baiña nere ikerketetan mugilduta nenbillarik edo, erantzun barik gelditu izan zintzan. Azketsi! Gogo-asmo jakintsutan, behi lez bizi naiz. Azken aldi hontan, bost urte diraut. "Gaurko larri-unea, funtsetik, erotik, sustraietatik... azaltzeko, argitzeko eta argiagotzeko".

Erderaz eta euskeraz idatzi dau. Erderaz: "Los cristianos ante el capitalismo en via muerta" y "Eicmann o la sombra de Cain".

Euskeraz, "Egan"-en eta "Zeruko Argia"-n batez be, "agur" eta "Izaro" izen-ordez.

Olerkari.—Poetak, geienez, gizaseme zaintsu, eragin, artegatsu ta kezkarriak izan oi dira. Gorputzez eta arimaz. Kezka dala be olerkia, irakurri dogu iñoizka.

Lurrak edo bizilekuak be ezarten ei dau olako bizitasuna, olerki-giroa. Martin'ek gazte zala erakutsi eban ori; ikasle zalarik, Komillas'en, Lovaina'n erakutsi euskun eder-zaletasuna, oler-sena. Urretxua'ko Olerti jaietarako beintzat, 1938'an, lantxo bat bialdu eban, ikasle zala egiña. 1933'ko "Eusko Olerkiak" liburuan datorren "Biotziz-keta".

Arrezkero ez dau, egia esan, askorik ondu. Baiña beti egin dau zerbait. Eta bitakoak izaten gure bertsoak: batzuk barru-barrutik sortuak, nobere eragiñez egiñak, arimako bear-izan batek bultzatuak; eta beste batzuk, norbaiteskututa, adibidez, osotuak, adiskide batek, jai batek, etxe argitaldari batek erreguka eskatuta. Lenengo lanetarako ez daukagu naimena estutu bearrik, berez dator argia, itza, irudikizun sotilla; barruko deiari erantzun ezkerro, berez-berez doa lanaren aria. Esku arteko zeregin guztiak saiets itxi ta gogo dardar, gozo ta bizi, zoitor bage doa azkeneraiño.

Olerki-lanak norbaiten eskabidez diranean, idazleak berak sortu bear dau goi-argi indarra. Au ez jaku ain erreza, sarritan bada naiz alperkeriz naiz gogorik ezagaitik, albora laga oi dogu eskabidearen naia. Orduan alako ta onako eragozpenak sortzen jakuz; orduan edo errez urte dogu garaille edo-ta goi-argiak iges igiten dausku osooan, txori egazlaria iduri.

Arrizubieta'k be izango zituan onako goraberak olerkigintzan. Bai Europa'n zear baitua ta igeska, eta bai, gero, Kordoba'ko arimazaintzan izanak ditu buru-auste ta lanak; alan be, beti jardun izan da olerkitxoren bat eioren.

Egia ete? Gitxi baiño argitara emon ez dauan arren, mor-do bat dauka argitaratu naian. Gabo-aldian bertsoz agur izan dauz bere adiskideak. Nik ba-dodaz emen urteetan Kordoba'tik artutakoak, bertso jori, gartsu, mamintsuak agurka andik bialduak.

Zeuk be, irakurle, jakin daizun zelako olerkaria dogun mundakar jakintsua, emen dozu an gerra aurreko urteetan, ikasle zala, ondutako "Biotz-izketa". Zortzi estrofa daukaz.

"Gau ixil baten Sabin abotsa nabaitu neban biotzan.
Maite dardaraz urduri neukan biotz txoria kokoan.

Zugatz ostoak aize zakarrak astindu ditun bezela,
Sabin abotsak astindu eustan ene barrunbe epela.

Abots leunari erantzun naiez "nun ete zagoz" niñotsan.

Sabin: "Otzez geixorik zure begira egon nago ibai ertzean".

Lanbroe bide legarraz zear ibai ertzer a ninoian.
Ta ibai-alderantz ninoialarik, itz onek txir-txir gogoan.

Sabin: "Ibai ertzean otzez geixorik zure begira natzazu".

Gogoak: "Baña illun ontan biotz begiak ikus zaikie t'ezautu?"

Sabin: "Aurrera, gogo, ire begira maitale antzo natzaik ni.
Eztok ikusten ibai leiarrak argi printzeok edaki?"

Neure gorputzak gau illun ontan sortu dau izpi zuria,
eusko biotzen su aberkoia izpitxu onen semia".

Auzpez gurturik Sabin itzala isla be isla yatazan iru margoizko izpi gartsuak ene begien leiarran".

Gerra zitala zala zio, ainbat euskal poeta, artista galdu jakuzan, illak eta or zear sakabanatuak. Itxaropen izar ziranak eusko zeruan, betiko itzaliak edo ondatuak. Tamal aundiz, olako bat dogu Arrizubieta, alanbear latzak gure artetik uxatuta; lan-baratz egokitik jaurtia, berezko lantokian lanik ezin osotuta.

Emen izan balitz eta barruko deiari ateak zabaldu, makiña bat lan bikain burutuko euskun, ziur asko, bere bizitza ederrean. Jakintsu ta artista dogu, baiña ego barik laga eben gaztetan.

Aita Onaindia

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

SARIKETA

USANSOLO'KO BATZOKIAREN IPUIN-SARIKETA

Usansolo'ko Batzokia euskereari, erriak darabilen euskereari buruz oso arduratsu dago. Orrexegaitik eratu dau ipuin-sariketa au. Ez dirua ugari daukelako, baiña bai ezertan dirua eralgitekotan, euskereari, erriak bertan darabilen eta erabili bear dauan euzkereari indarra emoteko eralgi bear dalako.

Sariketa onetan irabazle urten dabenak iru oneik dira:

LENENGO SARIDUNA: Miren Agur Meabe

BIGARREN SARIDUNA: Andoni Iruzta

IRUGARREN SARIDUNA: Itxaso Gutiérrez Pujana.

Eskerrik asko Usansolo Batzokiari eta zori ona irabazleai!

ZER

ELISAGAITIK, ELISARENTZAT (1.º SARIA)

Elisa ezagutu ebaneko, halabeharraren haize guztiak bat eginda bide zehatz batetik aurrera egiteko sakatu izan baleutse legez, Josebaren bizitzak helmuga bakar bat ikas-katu eban, eta itsu-itsuan emon ebazan lehenengo pausoak derriorrezko norabidekoa bihurtuko jakon bide barri hortan zehar: Elisagaz, Elisagaitik, Elisarentzat.

Hogei ta zazpi urte eukazan Elisak —berak baino lau gitxiago— lagun batzuk heurenean eratutako afari baten alkar ezagutu ebenean. Hasieran, Josebak ez eban beragana agertu jakinminak eta kortesiak eragiten dabezan besteen bizitzari buruzko galdera arruntak baino. Gero, baina, Elisak barre egin ebanean, beren barrea iturri bat iruditu jakon, ahoan ur freskoa balebilkio moduan, eta ur hortatik apur batek txipristindu izan baleu legez sentidu. Josebaren ondoan, bere emaztegaia beste mahaikideekin berbetan ebilen.

Sei hilebete gero, Elisa eta Joseba alkarregaz ezkondu ziran. Arratsaldero, moketa beigaren gainean almohadoi artean jezarrita Elisak hartuko eban kafea berotzen ipinten eban Josebak sukaldean. Maitasuna egiten eben sarri oraindik behearen gainetik bertatik jaso ere egin barik egozan kikeretako kafe hondarren usainean.

Brahms eta Cavafis, larrosaz apaindutako txarroi, eta espaloietan abesti bat ziran oinotsak aitatzuz, idazmakinetik heuren txakurraren kristalezko begi marroien begira-

da ixilaren konpainian, Joseba liburu bat idazten hasi zan Elisaz.

Lanean murgiltzen dan idazlearentzat denpora aldakorra da, ez dauko orduei idatzitakoaren arabera neurririk ipinterik. Mahai gaineko portafotoko Elisaren argazkiari naiz behinkako begirada bat zuzenduz, beren izakera eta bien alkarbizitzaren arteko hara-honantzean ebilen, beren belarri, beren begi edo beren eskuen eskutik izan ezik ulertezinak ziran berba, kontenplazio eta dartadak azalduz. Elisa irribarrez agertzen zan, lotaldi batetik erdi itzarturik baino ez egoala Josebak ez ustean egindako argazki bat zan eta. Ohean, ule baltz nahastatua, eta loak eragindako aurpegiaren espresio mantsoan, irribarrea bigun eta atseginan zan. Horregaitik beharbada, Joseba ez zan lehenengotan konturatu Elisa gero eta beranduago etxeratzen zanik, kikara gorrietako kafeari Elisa heldu orduko geroago sarriago tela egiten hasten jakonik.

Beranduago etorriko zala jakin eragiteko telefonoz deitu eban egunera arte, Joseba ez zan kargutu aspaldian egiten ez ebezenik ohizko paseoaldiak. Arratsalde horretan, Elisaren besoetan galtzeko desio eta beharrian bizienak igarri ebazan baita etxera heltzen zaneke haize zaflada batek legez etxea betetzen eben agur eta mosu alaiak faltan hartu be. Baina argazkiari begiratu, eta paperezko errektangulotik, Elisak irribarre zabal batez agurtzen eu-

tson, melena baltzaranak argiagaz jolasean aurpegian sortutako itzal eta argiuneen azpitik beren agin zurien irribarrez.

Artean, Josebaren ohiturak berezkoak baziran be, denpora asko bakarrik igarotzen dauanarentzat guztiz bidezko iristen jakon legez, orain apur apurka goizerdiko footingaldiak, eguerdiko bazkariak eta arratsaldeko kafeak ez eben ezagutzen ezelako ordutegirik. "Elisagaitik, Elisarentzat" idazteari ekin eutsonetik, beren emaztearen ezagupen osoak kanpo ta barrutik astintzen ebazalako Josebaren adimen, entzumen, ikumen eta beste ahalmen guztiak. Elisak naruzko zorroan ikastolatik ekarritako ariketei jarritako notei, zein erdipurdiko filme bati buruzko eritxiari, zein jardineko marraskiloak hilteko botika zabaltzeko moduari adituz, Josebak Elisaren edozertan dana azaltzeko aitzakia aurkitzen eban. Ez zan konturatzten, baina, ahal bait gehien ikusi nahiak beste era bateko itsukeria sorrerazten ebanik bere baitan eguneroko Elisa ezezagunago bihurtzen jakolako, berarentzat emakumea nor, zein eta zer zan ahaztuten joiakiolako.

Behin, deprimiturik egoala ta arratsalde baten etxera goizetik heldu zanean, Elisak besarkatu egiala eskatu eu-

tson gizonari eta gizona, bere abotsaren doinu barri hartan fijatu zan eta udazkenean kristaletik behera irristatzen dan euri tanta deslai bategaz konparatu eban. Akaso, mosu labur eta presatsu bat emon ondoren barriro beren idazmakinara bihurtzean entzun eban Elisaren negar zotin ixilagaz egin nahi izango eban baita.

Esaldi bat idazten ebanean, garaipena sinatzen eban argazkiari mosu bat emonaz. Elisa honek irribarre algartsu batez erantzuten eutson, norian ibilterakoan legez, burua atzerantz eginda ebalu ule mataz arteza moltzo baten haizeak eraginda.

Elisak betirako etxetik joatea erabaki eta atletik urten ebanean, Joseba beren emaztearen ibilkera astitsua deskribatzen ari zan. Ate ondoan Elisa gelditu egin zan une batez, eta Josebak astitsua zan ibilkera, penatutzat jo eban lehenengoz. Biek begiratu eben argazkia: Elisak begiak itxita eukazan barrearen barrez lehertu beharrean.

MIREN AGUR MEABE

TXIKI TABERNATIK EPAITEGIRA (2n. SARIA)

Ba zan herritxo bat (horrela hasten dira ipuin guztiak, baiña hau egia da) taberna ospetsu bat eukana: TXIKI taberna.

Han egiten ebezan afariak, hitzaldeak, batzarrak eta parrandak herri horretako euskaldunek.

Gizon bik TXIKI tabernatik desorduan urten eben, baiña ez arduak alperrik pasaturik. Edan eta berba, berba eta edan, atez kanpora atera ziranean, ekilibrioa bakarrik falta eben.

—Hi, lagundu egidak apur bat, ezin nok zutunik egon eta —esan eban batek.

—Hik ere bai gero niri —erantzun eutson besteak.

—Horrela izatekotan —jarraitu eban Peruk— hobe dok alkar eutsi eta batera zutunik egon.

Batak besteari heldu eutson eta ibiltzen hasi ziran.

—Ikusten dok? —galdetu eban Peruk—. Bai —esan eutson Lukik—. Ba gabizek orduan —atera eban batak.

Ni behintzat ba nabillek —zuzendu eban besteak.

—Orduan neu nabillek txarto —esan eban Peruk belaunean astuntasun handia igertzen yoat eta.

—Hori erreumarena izango dok —lasaitu eban Lukik.

—Nik ez joat (etxoat) erreumarik —hasarratu zan bata.

—Eukitea ere ez dok harritzekoa, hainbeste ordu TXIKI tabernan jazarrita eginik. Zenbat ordu? Eguerditik iluntzerarte ez jauk (etxauk) hainbeste.

Eguerditik goizalderarte esan gura izango dok.

—Eguerditik iluntzerarte esan joat. Ez dok, ba eguzkia jausten ikusten?

—¡Mekaguen Satanás! Eguzki hori igoten jabik, ez jausten.

—Hik esango deustak niri ez dok ezer ere ikusten eta —erantzun eutson Lukik.

—Baiña bai entzuten. Ez dok (eztok) entzuten ondotik pasatzen diran guztiek "egun on" esaten deuskuela? Gaiñera bateri heuk erantzun deustok.

—Ez jaukeat (etxeok) danooi hiri beste esplikazio eman beharrik.

—Hago isilik. Gagozan pixka bat geldi eta eguzkiak berak esango jok norantz doan —proposatu eban batak.

—Nik ez joat (etxoat) geldi egon beharrik mubitzea dezente kostatzen bajatak ere. Lepoa jokatuko deuat hori gorantz doala —bota eban Lukik.

—Eginda —heldu eutson Peruk.

—Banajoak tabernandrearengana —esan eban besteak. Horrexek esango jaustak egia.

Biak oraindik elkarriz helduta egozan eta batera bagoezan ere, apartatzea ez zan nahikoa izan. Zelan edo halan gizonak tabernako atea zabaldu eban eta heup! egin eban.

—Aitu, Karmen. Goizaldea ala iluntzea dan jokia egin jonagu eta?... Ederto: Higaz fiatzen non, hi ez hintzan nigaz fiatu baiña. Hi, deitu egin eutson gero kanpoan lagunari:

—Arrazoa daukak, goizaldea dok. Galdu joat lepoa.

—Hau dok orain konpromisoa —bota egin eban irabazleak— Lepoa bai, baiña hire bururik ez joat (etxoat) beharrik.

SARIKETA

—Jokoa, joko dok, hi: —zorroztu eutson besteak— Nire lepoa gura badok, gaiñekoa ere eroan beharko dok, gaiñera hire zeozer balio izango dok.

—Neureari geizpea egiteko ez bada, ez jakeat (etxakeat) zertarako balio leiken horrek.

—Hori herroren arazoa dok. Hurrengoan ez jokatzea daukak.

—Hau ez jauk (etxauk) honela erabakitzerik. Denpora galtzen ari gozak.

Peru eta Luki berriro sartu ziran tabernara. Batak besteari atean aurrea itxi-eutson gizalegez, baiña bera balantzatu zan barrurarte.

—Zertara zatoze berriro ere zuek —deitu egin eban tabernandreak— Arin egin dozue etxera itzulia, asto-kirten papauok.

—Iso Karmen. Etxera joan behar jonagu baiña ez jakinagu zelan. Batek buru bi eroan behar jozan eta besteak bat ere ez. Eta ez jakeat zein joango dan okerrago.

—Buruak? Farol apurtuek esan gura izango dozue. Zer behar dozue orain?

—Aitu Karmen —esan eban batak—. Honek lepoa jokatu eustan. Nik irabazi jautsonat eta horra orain buru eta guzti sartu gura deustala. Ez eukan uste makala!

—Lepoa jokatzan dauanak burua ere jokatu jon —sartu eban muturra besteak—. Zer nahi dok, ba? Etxea eroan eta teilatua bertan itxi.

Peru hasarratu zan, Lukik hori esatean. Orduantxe konturatu zan Lukik egindako gaiztakeriaz. Nola eikean berak goizaldea iluntzeagaz konfunditzea? Orain argi egoan.

Berak apropos egin eban hori eta apropos jokatu eutson lapoa, galduko ebala jakinik. Eta lepoagaz batera burua ere enpleatuko ebala jakinik.

Haserre egoan bata, hain lelo portatu zalako. Tabernandreak seriooki esan eutson:

—Hik zer pentsatzen don, Karmen? Nik lepoa irabazi arren, bururik eroateko obligaziorik dodala ala ez? Guk ez jonagu bururik aipatu.

—Nik ez jakiat ezer —esan eban Karmenek—. Nik bakarrik jakiat zeuen buruekaz gure etxerik ez dagoela moldatzerik eta hori auzitegian erabaki beharko dozue.

—Baiña hik zer uste dok? —ekin eutson besteak ere.

—Juezarengana joan behar dozuela —erantzun eban Karmenek.

Batak eta besteak juezarenganako bidean urten eben tabernatik. Bidez ez egoan urrin, baiña bai denporaz, heurrek eroen patxadagaz. Udaletxe ingurutik plazari buelta bat emonda, azkenez han irakurri eben: “Juzgado de Paz”.

—Zer esan gura jok horrek? —galdetu eban Peruk.

—Bakeak egiteko lekua —erantzun eban Lukik.

—Bakeak egin? —hasarratu zan Peru—. Horretarako tabernan ere bagaienduan nahiko leku. Burutzar hori niri kargaturik, bakeak egiteko asmorik badok, ondo hago.

—Non edo non erabaki beharko joagu, ba. Nik uste joat hor haupada bat egitearren, ez dogula osperik galduko.

—Gozen ba. Ikusiko deutsogu zer justizi aire dabilen hortik.

Bat eta bestea juezaren aurrean ezarri ziranean bakoitza bere buruagaz egoazan.

—Jaun epaikaria —esan eutson batak juez nagusiari—. Gizon horeri apustu bat egin deutsot. Irabazi deust eta ez dau hartu hartu gura.

—Ez da horrela, epaikari jauna —aztertu eban besteak—. Nik honi lepoa jokatu neutson eta egia da irabazi neutsona. Baiña lepoa bakarrik eta ez buru ta guzti, honek orain sartu nahi deustan moduan.

—Entzun, jaun bedekintuok —hasi zan epaikari nagusia—. Ez dakit ondo entzuten nagoan, ala guztiz burua galduta dodan.

—Ez jauna —hitzegin eban besteak—. Burua nahi dauana hau da, niri ezarririk. Baiña neuk neureagaz ere badot nahiko eta baten-bateri begia jokatzan badeutsot, ez daukatu gero betaurrekoak ere jaso beharrik.

—Gauza bat dozak betaurrekoak kendu eta ipintzeakoak —sartu zan bata— eta oso beste bat burua. Noz ikusi dok hik bururik lepotik aparte?

—Eta hik noz ikusi dok?

—Iso jaunak! Zer esaten zagoze? —moztu eban epaikariak—. Goazen astiro eta jakin daigun zertan gabizan. Ba! Nor da joko irabazlea?

—Joko irabazlea ni —esan eban besteak—. Baiña azkenean neu naz galtzaile.

—Hori jokatu aurretik pentsatu behar euan —bota eutson bata.

—Iso berriz ere! —orroa egin eban epaikariak. Hurren neuk esan arte agorik zabaltzen badozue ikusiko dozue gauza ona zer dan. Neuk galdetzen dodanari bakarrik erantzun. Nor da galtzailea?

—Neu, jauna —esan eban batek.

—Zelan izan zan jokoa?

—Begira jauna. Goizaldean TXIKI tabernatik urten dogu gau guztia han pasaturik eta honek esaten eban ez zala goizaldea, iluntzea baiño. Lepoa jokatu joat iluntzea dala esan deust eta nik baietz.

Tabernandreak galdetu deutso eta etsi dau. Ni irabazle eta bera galtzaile.

—Horrela da hori? —galdetu eutson epaikariak besteari.

—Horrela da baiña ez guztiz. Ni prest nago irabazi dodana jasotzeko. Baiña honek orain burua ere neuri leporatu gura deust.

—Nik ez deutsot iñori ezer kargatu gura, jauna —azaldu eban batak—. Nik ez dakidana da zelan emon daikeo-dan honi lepoa, bururik barik.

—Eta hik bururik barik ibiltzeko gogoia daukak? —galdetu eutson epaikariak.

—Gaur behintzat bai, jauna, oso astuna daukat eta. Bestelako arintasuna hartuko leuke nire gorputzak. Mar-txa honetan uste dot erabakia burutu aurretik eguna joan behar jakula.

—Eta nik zer egin behar dodala uste dok hik? —galdetu eutson besteari.

—Epaikariak berak zer egin behar dauan ez badaki, argileku ederrera etorri gozak —marmatu eutson besteak bere buruari—. Nik ez dakit, ba, jauna? —esan eutson epaikariari.

—Geure artean konpondu ezin dogunean, juezera jotzeko erakutsi euskuen. Orain berorrek guri galdetu behar badeusku, TXIKI tabernan hobeto gengoan horretarako.

—Zuek hau taberna zalakoan etorri zaree ala?

—Hala litzake, jauna, guk tabernan bilatzen dogun bakarra hemen balitz —argitu eban batak—. Ez guk ez berorrek zer egin ez badakigu, zergaitik ez dogu botilla erditxo bat hustuzen?

—Hau ez da edaritegia! —mostu eban zakarki epaikariak. Hau epaitegia da eta ganora gabeko auziagaz etortzearren hogeina duroko fiantsa itxi eta zoaze etxera.

—Nik horren burua eroan behar badot —esan eban besteak— ordaindu dagiala fiantsa berak.

—Baiña nik ez joat fiantsarik botako —hitz egin eban zutunik batak—. Galdutakoak ordaindu arte.

—Hago lasai gizona. Parkatu egiten deuat —esan eban besteak.

—Jokoa jokoa dok. Hau ez dok abadeen aitortegia epaitegia baiño.

—Eroan egik lepo hori lehenengo bizkarrean. Oraingoa parkatzen deuat baiña hurrengoan buru eta guzti.

Alkarregaz teman nahastuta egozala, epaikaria aldegiña zala konturatu ziran. Epaikariak bere aldetik pentsatu eban heurek etxera bidaltzea baiño bera erretiratzea errezagoa zala. Hala gelditu ziran bata eta bestea, —Peru eta Luki— alkarren aurrez aurre epaitegiko areto nagusian. Berrito TXIKI tabernara joatea pentsatu eban. Eguna aurrera joanda zan eta iluntzea ez egoan urrin.

—Arrazoa dok —esan eban besteari—. Iluntzea dok.

ANDONI IRUZTA

“TXINGILI-MINGILI”

(3n. SARIA)

Gaua...

Euria etzalean, zurrustaka... Aizea, pizti sutu giza, garrasika kaleak miskatzen.

Otz naz... Ur tanta izostuak, aize boladetan, kristalak astintzen.

Gelako bonbila daunbadaka. Argia indarra galtzen, tximista askar batek kalea argitzen dauan bitartean. Trumoi bildurgarria jarraian, gela zaparrasten...

Barikua da. “Hortensia” izeneko bekaizea gainean dogu. Usansolon nago, ipuin leiaketa batetako arauera irakurtzen.

Ama eskatzera datorkit, erremuska oerutzen ez nazelako. Joan doa. Berriz ere eskatzeko bakartadean. Kanean, dizdira argitsu barri bat eta oraingoa... “flask”. Dana ilunetan.

Zalantzan nago. Uleak lazkatu egiten jataz. Irudiak kilixki-kalaxka, nastagarriak, ezezagunak, zoraturik, neure burutik zear.

Amama Hilaria difuntuagaz gogoratzen naz, neguko arratsalde izugarri aretan, baserrian, bere arnaz astitsua-gaz, jesarrita ipuin batetan balitz, gela epeltzen eban besuaren aurrean, marmarka, mix-mixka, ixil-mixilka. Bere esku zimelduak, txipilak, tximurrak, makortsuak, apurtuak..., gozoki, laztanki ikutuz ikusezinezko, itxurapezko eta inoiz ain trebeki erabilitako errosario gonderak. Begiak, goibelduak, beperatuak, ilindietan so ta so, bertan estalitako sorginkeria bilatu eta ulertu-ezinezko misterioari erantzuna aurkitu nairik.

Gogora datorkit baita nola neure burua jarri neban bere altzo berotsu, lasai, amatiarrean. Bere atzamarrak nire kirrudun uleak atseginez laztantzen eta zelan abotsa

gozotu egin eban, nai barik bearbada, beren ulertu-gabeko misterioa, kontatzen asi jatanean.

“Gaurako gau batetan...” —asi zan— “afaldu ostean, besuaren epeltasun samurrak, sutondora urbildu ginduzan. Aitite, nekaturik, oeratu egin zan.

Kanean dana zan ixiltasuna... Lantzean, euri bolada indartsuak kristalen kontrara.

Osaba Patxik, ixilka-mixilka, aitite ez izartzeko, txutxu-putxuka, errian esandakoak eta atsokeriak kontatzen euskuzan, sua, geure aurrean, arian-arian, desager-tzen zan bitartean”.

Amama ixildu egin zan. Arnas-armin baten ondoren, bere ezker eskuaz ilindiak, samurki mogitu ebazan.

“Orduan —jarraitu eban— inoiz ez ikusitakoa gertatu zan. Aize korronte indartsu batek tximinitik sartu eta errautsak eskatzean zabaldu egin ebazan. Txingorak, une batetan, berezko bizitza artu eban, arminduak, dizdiratsuak, txerrenkiak, momentuan lengo itxurara biurtzeko.

Ganbaran... “txast”, kolpe sendo bat...; zerbait jausi egin zan.

—Aizeak mogitutako teilaren bat izango da —esan eban izeko Marik.

Berandu zan. Oeratzeko garaia. Otoitzetan asi ginan. Bat-batera, kiskete baten txirrin otsa... Ol-karraska Bi...

—Izartu dogu aite —esan neutsen—. Salako argia biztutzen ez badogu, jausi egingo da.

Euria, gugana sartu naian balego lez, kristalak barriro ere astindu ebazan.

Aitite, esnatzen genduan, amorru bizitan jartzen zala jakinik, geletara joateko akordua artu gendun.

SARIKETA

Zutundu nintzan. eta nire atzetik besteok.

Salako argia atearen kantoian egoan, eta arantza aurreratu nintzan, aitite jausi ez eitean.

Dana irri-arra batetan jazo zan.

Ez dakit zer izan zan leena, atea zabaldu edo argia biz-tutzea.

Ganbarako atea zabalik egoan, eta..."

Amama barriro ere ixildu zan. Dardarka. Bildurrez? Sutara so ta so. Bere eskuak amantal ilunean gorde eta muxuluka...

"Ez zan aitite izan ganbarako atea zabaldu ebana!! ezta ol-karraskatzailea ere!!"

Jarraian ixilunerik luzeena. Nik, begiak berangan tinkoturik. Ez nintzan, itz bat bera ere esaten, ausartzen.

"An, geure aurrean, zerbait arraro egoan..., inoiz ere ikusitakoa..., ez zan gizaki..., ezta sarritako aberea..., katua dirudien, baina askoz andiagoa, itzala, garriraino eltzean jakuna, gorriska eta oriska, buztan beltz luzeduna.

Bere burua inguraturik ikustean, igeskor, ganbarara itzultzen alegindu zan, baina osaba Tomasek, bere aurretik eldu, eta atea morroilatu egin eban. Aren begiak, zuloe-tatik urten naian, amorru bizitan. Bildur zan. Salto egiteko prest egoan, osabak eskilarapeko makil bat artu, eta, indartsu, anka batetan jo egin ebanean. Kolpeaz izakia lurrean etzanda lotu zan. Aberearen iztarritik garrazkots mingarri bat. Negarretan balitz, malko aundi batzuk aurpegitik zirristan.

Ain aundi!, ain basabere!, eta, an, ostera, lurrean etzanda eta bareturik... zein eder!, zein polit! Baserri aberatsen batetakoa izango ete zan?

Iker a oraindik kendu barik, odola matrailetara itzuli gabe, biotza taupada zorotan, eta estutasun besterik ez egoan lekutik, indarrak ataratzten, urrungo egunerarte itxarotea, eta aberea, urteera gabeko zan eskatzera sartzea erabaki gendun. Atea ondo finkatu eta logeletara joan ginan.

Zer nolako gaua egun aretakoa! Baserriko gela guz-tiak, irudi bildurgarriak bete ziran. Gainezka egiten eutsan bildurrak logure derrigortuari.

Leio guztiak zalkatu genduzan.

Kalean afruntuak jarraitzen eban, aizea garrazika pinuen artetik, eramaitzak baserria zakustatzen. Naiago izango gendukean gau aretan argirik ez itzaltzarik. Ordu-tik ordurako erlojuaren tilina benetan luzegatx. Danok eskatzetik etorritako orruren baten zain. Ezinezkoa izan gendun gau aretan lo egitea, inoiz entzundako ipuin bildur-garrietako izaki guztiak gelaratzen bai jakuzan".

Amamaren abotsa geroz eta aulagoa zan.

"Goizetik, gertaturikoa aititari kontatu ondoren, alka-rrgaz, badaezpadan, eskatzerantza urbildu ginan.

Batek baekian zer gertatu litzakean abere aregaz!

Atea, poliki-poliki zabaldu neban, ango izakia ez bil-durtzeko asmotan.

Baina... ez egoan inor...!

Non demontre egoan...?

Nondik urten ete eban...?

Leioak, atea... dan-dana ondo be ondo itxita egoan...!

Tximinitik...? Ezinezkoa...!

Amamak txingorretatik begiak jaso, eta begiratu egin nindun.

"Egun beretan —einostan— Lekueko baserri batetako andra bat... ankapurtuaz agertu zan...!, txingili-mingili...! Familia aretan, sorgin ostea euken...".

Gogoratzen dot biongan izan gendun larritasuna, estu-rasuna, atsekabea; gau aretan ere, dana zan bardina. Afruntua, ixiltasuna, gau iluna... Barriz ere gertatuko-tan...? Bildur ginan.

— Amama, sinisten al dozu sorginetan? —galdetu egin neutsan.

Aitiaren egin ondoren, nire eskuak artu eta...

— Nik danon aita dan Jaungoiko Jaunagan sinisten dot, baina sorginkeri eta deabrukeriak, gure utsengaitik datorkiguz, eta aren ondorioz... zinak eta minak ikusi bear doguz.

— Eta, orain ere, ba al dago sorginik? —nik.

Ez zan erantzunik egon.

Trumoi burrunbatsu, sorgarri, durrundari bat eta barriro ere argia eskatzean. "Hortensia" oraindio...

Dana bere serera dator.

Inguruan daukadazan gauzak, aztertu egiten dodaz. Dana bere lekuan, baina era bat sorgindurik.

Alako batetan leioak... "BLAUST", pare-parean zaba-lik!

Sorgin-aize bat eskatzeko jabea...

Ur tanta biziak aurpegiraino, uleak arrotuz, sapazta-tuz...'

Erlojua, amabiak joten...

Dardar baten nago...

Biotza taupadaka...

Bildur naz.

ITXASO GUTIERREZ PUJANA
("MARIA GORA")

LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (III)

KAMINAZPIREN OARRA

Azilleko zenbakian (80.^a), amabigarren orrialdean, erdian sartu bear zan agea edo kolumna ezkerrean dator eta azkerrean sartu bear zana erdian.

Gure erru bagako oker au zuzentzen dogu, Kamiñazpi idazlearen eskariaz, irakurleen argibiderako.

Gure Prantzia'ko lenengo urtean ezer egiteko barik bizi izan giñan. Eguraztu ta jolastu, pelotan eta ondartzan fubolean eta igarian. Lanik ez egoan atzerritarrentzat. Ta gu euskaldunok, ango jendearentzat edo legearentzat beintzat, atzerritarrak giñan Euskal Erri'ko alderdi aretan. Alan be, zortzi-amar bat egunean arenkeak (sardiñak) guten ibilli nintzan ango bodega baten. Nagusia, Diaz abizenekoa zan; eta asko geroago emen jakin nebenez aren semea ei da Iratzeder praille euskal idazle iaioa.

Gure orduko kezka nagusia ta jardun gai nabarmena España'ko matxinadea zan, egiten ziarduen gudearen goraberak ziran. Orregaitik, ia egunero erosten genduan izparringia, zer albista ekarren jakiteko. Besteren bat be iñoiz (noizbait) erosiko genduan baiña gure izparringiak iru ziran: LA DEPECHE, LA PETITE GIRONDE ta PARIS SOIR. Batean bat, ta bestean bestea, onetxek ziran guk irakurten genduzanak. LA DEPECHE, batez be gudako kontuak jakiteko erosten genduan. Ba-genkian ezkertarra zana. Egun baten, igandez, Teodoro lengusuak erosi eban eta apur bat irakurri ondoren toloztu ta jakako poltzikoan gorde. Gero igande edo jaia zan eta Donibane'ko elizara joan giñan mezea entzutera. Urteeran, korutik urten eta kanpoan kalera jeisteko dagozan mailladian, bes-teen tartetik tokia ezin egiñaz, gizon bat urreratu jakon eta erarik onenean zerbait esan eutsan ixil-ixillik. Orduan, lengusuak, poltzikotik atara izparringia ta birea emonaz barriro sartu egin eban, eta gizon ari eskerrak emon. Orduan nik berari, ea gizon arek zer esan eutsan itandu neutsan. Auxe esan ei eutsan gizon arek: Ez ebalaz jakingo baiña izparringi a elizearen arerioa zala.

Guri sekula ez jakun bururatu izparringi a erosteak katolikoai txarto emoten eutsanik, ezkertarra zala jakin arren. Orregaitik gizon aren uste bako urtereak Teodoro'ren arpegia kolore gorritan laga eban. Ez naz gogoratzen izparringi a geiago erosi genduan ala ez; baiña erosi bagenduan be ondo eskutauta elizara eruango genduala ziur nago.

Izparringia zala ta ez zala beste jazoera polit bat be izan genduan. LE COURRIERE arratsaldeko izparringiak ordezkarietza eukan Donibane'n eta leio edo eskapa-

rtean, leiarrari itsasita zabalazabal ipinten eben, oso-osorik. Asko joaten ziran edo giñan dubako izparringi a irakurtera, betez be gudeari igesik ara jaondako euskaldunok.

Egun baten, barri jakingarriagoak edo gure naien aldekoak ekarri-edo, leio aurre guztia alkarrereri tokirik ezin eginda jendez beterik egoan. Onetan, Ziburu'n bizi zan abade urtetsu bat etorri zan eta bultz eta bultz asi zan aurrera sartu naian. Ez dot uste abade a euskalduna zanik. Zarra zan, baiña mosolo itxurakoa, gitxigaitik bildurtuko ez zan orretarikoa. Bere jokera ikusita gure lagun Karlos'ek (Karlos Astasio) zerbait esan-edo beintzat, sekulako eztabaidea atara eben, prantzesez. Ta orduan, gure lagunak, sartu ordezkarietza aretara ta izparringia eskatu eban. Barrukoak ikusi eben zer jazo zan eta ez eutsen dirurik artu, eta Karlos'ek, eroatera joan eta duban emon eutsen izparringi a abadeari emotera joan zan. Jakiña, abadeak ori isekatzat artu eban eta len baiño zalaparta andiagoo atara eben. Olan ebiltzala ertzain bat urreratu zan, Lateraliko ertzaiña, eta gure laguna artu ta beragaz eroan eban komisariara. Ori ikusirik Rafael lengusua bizi-bizi ertzaiñarengana joan zan ez dakit zer esaten eta ari be jarraitzeko agindu eutsan. Baiña ogetamar oinkada emon baiño len aske laga eban Rafael. Karlos'eri urrunagotik bada be danok jarraitu geuntsan eta bereala askatu eben komisaririk. Ez dakit izenik-edo ezeq artu eutsen.

Madritarra zan Karlos, baiña ama ondarrutarra eban eta sasi euskerea egiten eban.

Egun baten txirlatara joan nintzan Ziburu'ko ibaira. Ondarru'n zeregin ezaguna da txirlatarkoa. Bai andrazkoak eta bai gizonezkoak edozenbat ibiltzen ziran len (gaurkorik ez dakit) batez be itxasotik irabazirik ez zanean. Baiña geienbat, mutil gazteak, poltzikorako diru apur baten jaube egiteko. Neu be umetan, lanean asi barik nengoala, iñoiz joanda nago txirlatara. Baiña esatekorik ez.

Txirlatan era bitakoak izaten dira, zeregiña ondo dakienak eta ez dakienak. Geienak azkenengoetarikoak; atxur txiki bat artu eta lurra edo ondarra aztertuz txirlak biltzen dituenak. Besteak, gitxiago, eskuan koillara bat

GUDALDIA

naikoa izaten dabe ta begiz ezagutzen dabe nun dagoan txirlea ta antxe koillarea sartuaz uts barik ataraten dabe.

Aldi aretan gure osabaren etxean beste ondarrutar bi be ba-egozan: Iseba Maria'ren anaia Urrufino ta bien illo-ba Karmelo, irurak Garalde abizenekoak. Azken biak ondarrutarrontzat, Urrufiño pintorea ta Karmelo Samar. Karmelo on-ona zan txirlatan, asko artutakoa Ondarru'n. Ta egun baten an Ziburu'n egoala txirlatara joatea bururatu jakon eta pillo ederra etxeratu eban, danok jateko.

Nire adiñeko mutil gaztea etxera zerbait ekarten alegindu zan eta osabaren kontura bizi nintzan neu be al nebana egin bearrean nengoan. Ta joatea erabagi neban beste egun baten, nai ta gogoaren aurka.

Umetan iñoiz txirlatan izandakoa benintzan be orduan arrotz egiten jatan zeregin a. Ta ez ori bakarrik. An sekula ez neban iñor txirlatan ikusi ta orretan jardutea guztiz beartsu agertzea iruditen jatan. Baiña alan be joan egin nintzan.

Lengusuak neure bakartasunean lagundu naian lez, moilla ertzera etorri jatazan eta andik begira eta noizean bein alkarrri zerbait esanaz, an gengoan. Gerotxuago, bietatik gazteagoa, Rafael, ibaira jeistera ausartu zan eta a be asi zan zerbait billatu naian. Ez dakit garaurik artu genduan ala ez; ezetz uste dot.

Olan genbiltzala itxasontzi bat agertu zan kai sarreran geldi-geldi marea naikoa beian egoan da. Ikusi orduko ezagutu neban; ondarrutarra zan: SAN LORENZO. Ondarrutarrontzat, SAN LORENTZO. Jendez beteta etorren. Lekeitio'tik etorri zan, andik igesi etorren itxasontzi txiki baten itxasoan naikoa larri arkitutako Franco'ren aldeko jendeagaz. (Orduan "frente" Ondarru ta Lekeitio bitartean egoan). Itxasontzi a ikusirik laga egin genduan txirlatan jardutea ta zer barri ekarren jakitera joan. Geiago ez nintzan joan txirlatara. Orduan artutakoak jateko ipinten lan andirik ez eban izan ixiko Maria'k.

LIBURUAK

Alboan agertzen diran zerrendako liburuak salgai dira **«EUSKERAZALEAK»** en idazkaritzan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

Los libros al lado indicados pueden adquirirlos en las oficinas de **«EUSKERAZALEAK»**.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

Nora Zoaz	350 laurleko
Giza Soiña	350 »
Iniciación al Euskera	350 »
Irakurgai errezeptak I	100 »
(Zenbat Urte)	
Irakurgai errezeptak II	200 »
(David Copperfield)	
Aurtxoa II	100 »
Eginkizunak I	100 »
Eginkizunak II	100 »
Eginkizunak III	100 »
Euskal Irakasbide Laburra	400 »
(Gramática X. Peña)	
Euskal Irakasbide Laburra, 3 kaseta	1.000 »
(Gramática X. Peña)	
Diccionario Ikas	500 »
Ipuiñak	350 »

LARRUN'ERAKO OSTEREA

Egun baten Larrun mendira osterea egin genduan bost lagunek; aitatutako lengusu biak, Karlos madritarrak, Etxebarria'tar Ixidor ondarrutarrak eta neuk. Negua zan, 1936'garrengo Gabon aurretikoko egun bat, illaren 223a edo. Negua izan arren zoragarrizko eguna gertatu jakun, eguzki epela ta argi, guztiz argi. Eguraldiaren giltza geure eskutan euki bagendu be obeago ezin egin izango genduan. Errekaize (ego-aize) egunetan baizen errez ikusten zan urruna.

Larrun mendiak 900 neurkin daukaz esan euskuenez. Lenengo irutatik bi inguru erreka tartetik igoten da; gero, bat batera, oso-osorik goi alde guztia agertzen da aurre-aurrean musturreraño. Ordu erdi inguruko bidea palta genduala apur bat atsedenduten geratu giñan lenengo aldiz gero azken zatiari erasoteko. Mendi gaillurrak urrean zirudian. Ta zearka joian bidea laga ta zuzenean goruntz ekin bear geuntsala bururatu jakon Ixidor'eri. Lengusuak, mendiko barri guk baiño obeto ekien eta Karlos lagun ebela alkarrerri orpoz-orpoz jarraituaz bidez-bide joan ziran.

Ni Ixidor'egaz batera asi nintzan zuzenean aldatza igon naian, baiña luzaro baiño len an gengoan arnas estuka. Besteak tapa-tapa joiazan, gora ta gora ta gu ogei neurkin egin orduko ia itoan geratzen giñan lurrean jarrita (jezarrita) edo an arkitzen ziran arri andi zapaletan etzinda zerura begira.

Noiz edo noiz eldu giñan gaillurrera, besteak baiño ordu erdi bai atzerago. Gora eldu baiño lentxuago, ikuskitzun ikusgarrizkoa zala, didarrez esan euskun goian zan batek. Ta alantxe zan. Antzokian oiala jasota bat-batera gauza barriak ikusten diran antzera begien aurrean agertu jatan izadiaren edertasunak lilluratu egin ninduan. Euskal Erri'ko mendi andi guztiak, batzuk urrunago ta besteak urreago, antxe neukazan begien aurrean. Baiña batez be urrean ikusten ziran Naparroa'ko mendi basotsu areik biotz arrarea egin eusten. Benetan diñot: berrogetamar urte daukadaz lerro oneik idazten diardutanean (orain ogetabat urte geiago daukadaz) eta egundo ez dot ikusi ezer nire begientzat ain atsegingarri izan danik. Eta jakiña biotzarentzat be ez.

Tontor-tontorrean oin bakarreko arrizko mai biribil bat, mapea, egoan. Ikusten ziran mendi guztien narri emoten eban; zein mendi ze, zenbat neurkiñeko goruntzkoa eukan, Larrun'dik zenbat bidera egoan. Ikusten ziran mendi guztiak ezagutu geinkezan.

Gerotxuago, ara ta ona ibilli ondoren, bazkaltzea erabagi genduan. Larrun mendiko gaillura Prantzia da ta beste alde Espaiña. Egitan, alderdi biak Euskal Erria baiño ez dira baiña zer-edo-zelan esan egin bear. Mapea, tontor-tontorrean egoan, Prantzia'koak ipiñita, euren ustez euren dan tokia. Antxe bertan, Prantzia aldera, ostatua izandako piso bateko etxe edo danadalako bat egoan ia lur jota. Onen alderdi bat arru baten gaiñean zan. Antxe, etxe aretatik kanpora, arru gaiñean bazkaldu bear genduala esan genduan. An goian, Prantzia'ko lurretan egon arren, espaiñiar muga zaiñak atrapau baginduez eurakaz eroango ginduezala ezpairik ez geunkan. Orregaitik, Prantzia aldera apur bat berago geratzea obe zala esan neban baiña lagunak ez eben nai. Ta antxe bazkaldu genduan.

Baiña danok geunkan kezkea edo bildur apurra an, sagua segutegi baten lez gengoalako, ezin iges egiteko eran. Aizeak be jolastu egin nai izan eban gugaz; etxe ar aretako leio batek soiñu larria atara ostean danbateko gogorra emon eban eta biotza jauzika ipiñi euskun. Baiña, denporegaz joan jakuzan keixura apurrak. Bazkal ostean abestuten eta kontuak kontauten nasai egon giñan. Gero Teodoro'k eta Karlos'ek alde egin eben.

Ba-ziran ordu bi ara gora eldu giñala. Alako baten, orain izentau dodazan lagun biak eringa-aringa etorri ziran, Naparroa aldetik txapel gorridun bi etozela ta. Lenengoan ez neutsen sinistu, baiña Teodoro, Jatekoa eroan genduan zorroa artu ta mendian beruntz asi zala ikustean, sinistu neban. Bai orixe! Beste lagunak arru aldera asi ziran. Ni, barriz, beruntz zuzen-zuzenean, goruntzkoan arnas estuka igon genduan zuzenbidean. Itsumustuan niñoian; naita edo nai ezda, umeak jolasean oe gaiñean egiten dituenen antzeko saltuak egiten nituan. Nik ez nekian nortzuk ziran txapel gorridunak eta nun edo zenbat bidera etozan Naparroa aldetik Larrun'erako euren bidean. Baiña era aretan igesik niñoiala ikusten baeben zerbait txar bururatu eragiñaz neuri tiroen bat jaurtiteko bidea emoten neutsela ta eskutau nai neban neure burua. Baiña ez egoan ori bereala egin al izaterik, mendiaren irutatik bat inguru tontoretik aurrez-aurre menpean arkitzen dalako. Ta tiro ota noiz entzungo niñoian musturrak ausi bearrean. Atzera begiratu neban aldatza gitxitu zanean. Gaillurrean iñor baegoan be ez zan erreza ikustea eguzkiak ez eban lagaten da. Gaiñera nik ez neukan astirik ondo begira egoteko ta zelateko begiratzea egin neban bakarrik. Baiña tontorrean iñor ikusi ez baneban be, ikusi nituan lagunak. Jaungoiko maitea, nun etozen arek! Txiki-txikiak ikusten ziran. Gerotxuago lorozko esiak urten eustan; ipurdira baiño gorago ez zan elduko. Alan be ez nintzan gauza a gaiñetik igaroteko ta zearka ainbeste denpora galdu neban. Niri tiroa jaurtiteko gogoia iñok izan baleu ez eban gatx ni jotea. Arin ta arin, eskutau neban Larrun'go tontorra, alako baten.

Orduantxe joan jatazan bildurrak. Geratzea be pentsau neban apur bat atsedenduteko. Baiña ez; dardaraka neukazan izterrak, lertu bearrean zaiñak. Ta bein geratu ezkerro, berotasuna galdu ezkerro, bear bada zutiñik egoteko ez nintzala gauza izango ta aurrera joatea erabagi neban. Ta Azkain'era jatsi ta andik etxera iñun geratu barik.

Ni bakarrik etxera biurtu nintzala ikusita bildurtu egin zan osaba, goiz aretan kontrabandista batek mugan arrisku andia egoala esan eutsan da. Baiña ez! Ordutik ordu erdi baiño geiagora etorri ziran beste lagunak. Gureak izan ziran barreak alkar ikusi genduanean, batez be eurenak! Didarka ibilli ei jatazan geratu neintean; baiña urrun niñoian ni aren didarrak entzuteko. Neuk eurak ikusten nituan les eurak be ni ikusten ei ninduen, txiki-txikia.

Biamonean abagitasun (agujetas) miñakaz oetik jagi nintzan. Urrengo egunean oraindik txartoago nengoan. Ta irugarrenean ez nintzan gauza oetik jagiteko ta egun guztian antxe egon nintzan luze-luze eginda.

Kamiñazpi

ILLUNTASUNA BAJURAN

Anton Garai: Estaduko arraintza-politikeak laster bapeztuko dauz gure txalupak eta Nikola Peri pozarren izango da berez il direla pentsatzen. Buruz bera sartu bear dogula European badiñoe buruz bera sartuko gara. Euskal Erriko administrazioa, diputazioak eta geure diputauegaz indar egin bear dogu Madrillen.

Gure artean antxiñakoa dan arraintzea momentu garrantzitsu baten aurkitzen da.

Asi-barri dogun urte onetan gauza asko geratuko dira erabagita datorren aldi luze baterako, eurekaz kontauta edo kontau barik.

Anton Garai, Bizkaiko kofradiarteko alkarteko leendakaria: Estaduko arraintza-politikeak laster bapeztuko dauz gure txalupak. Urte zaarra justo-justoan amaitu badabe txalupa batzuk, laster saldu edo amarrau egin bearko dabez eta ez da berregituratzerik bear izango, Nikola Peri pozarren izango dalarik gure txalupak berez il direla pentsatzen.

ZER.—Asi barria dogun urte au illun ikusten dozue orduan?

A. Garai.—Illun baño illunago. Petrolioak gorantza egin dau eta orain-arteko laguntzak kendu egnko dauskuezela esan dauskue eta gaiñera I.V.A. deritsen zergea ipiñiko ei dausie kofradieri. Leen G-4, portuetako zergea ordaindu gura ezik baebilzan kanporatzaileak, erosleak; I.V.A.ren % 6 orregaz askoz ere txarrago izango gara eta arazo geiago izango doguz.

Gu leenengo arloko leenengo salmenta gara eta au estadu maillan eztabaidatu bearra dago, gure diputaduari erakutsi bear dausagularik guztia parlamentuan aldeztu dagien.

ZER.—Ze itsaropen daukazue Europako Ekonomi Alkartean sartzeari buruz?

A. Garai.—Ez lar onegia. Frantziak jarritako oztopoen bildurra daukat. Leenengo eta bein, orain arte Epaillaren 1 etik Bagillaren 31 arte emoten izan badauskuez antxobatarako lizentziak; orain, Jorraillaren batetik Bagillaren ogeitamarrerarte izango dira. Illebeten bat gitxiago izango dogularik.

Sardiñetarako, Garagarrillaren 1'etik Gabonillaren 31 arte.

Baimen onek arrain mota orretarako dira bakarrik eta esandako sasoiatan eta sarea botakeran beste motaren batetako atrapatzen badogu tartean eta patrullera bat etorri, detenidute eroango gauez Baiona edo Bordelera.

ZER.—Alderantziz bertakoak zelan ibiliko dira gure uretan?

A. Garai.—Eurek ezertariko oztopo barik ibilteko eskubidea izango dabe. Gura daben eran eta gura daben aiña atrapatuko dabe. Kontuan euki bear dogu gaiñera, Hendaian dituen txalupak semi pelagika deritxon erako arraintza mota pratikatzen dabela, pratika onegaz dabilzen tokian arraintza guztia agortzen dabelarik, Frantzian bertan eta Donibaneko arrantzaleen protesten gaiñetik egin daben lez. Beraz gure kupo eta baldintzak betetzen ez baditue, guri ez jaku beste biderik geratuko eurekaz burrukan egitea baño.

Guze onetatik aparte, Frantzik egindako ezkeintzaren arabera, emengo kontserbak ez leukie aranzel-kentzerik izango arantzarakoan eta guk guztia itxi bearko geunke libre.

Gure ustez au onartu eziñekoa da. Inportazioa libre ixten badogu exportazioak ere libre izan bear dau, bai freskoan eta bai kontserban.

ZER.—Orain arte ze jarrera daroa estaduak negoziatio onetan?

A. Garai.—Estaduari bardin dautso arraintzeagaitik. Gu % 3 bat baño ez gara izango estaduan eta gure berbea albora botako dabe baña Euskal Erriko gobernuagaz, diputazioekaz eta gure diputauegaz indar egin bear dogu Madrillen eta geuk zelan pentsaten dogun esan. Estatuari bardin dautso. Buruz bera sartu bear dala esaten da dautsoe, buruz bera sartuko da eta bein isterra sartu ezkeron penasago izango da ataraten eta aurretiz esan bear dausagu. Obeto izango da beranduago sartu Merkado Komunera baña gauzak ondo eginda.

URETA

BEDIAGA'KO SAN BIXENTE

“Antigüedades de Vizcaya”ren bigarren atalekoak baiño oraintsuagoko jakingarriak daukuguz, 1793n.urtean Juan Iturriza Zabala'k batuak:

”Amorebieta'ko San Bizente'ren baseleizan iru edo lau illobi euren arrilobiakaz egozan orain 40 urtera arte eta 1783n.urtean illobi bat estalki barik dago eta beste bat estalkiagaz Bediaga Barrera etxean”.

* * *

Pillokari beronek diñosku 1785n.urteko esku-idazkian zenbat baseleiza ziran Amorebieta'ko Eleizaldean eta beste gauza batzun artean au diño:

“Amorebieta'ko Eleizaldean 13 baseleiza dagoz eta santu onei eskiñiak dira: San Luzia'ri, Ofrendo'koa San Juan'eri, Larrineta'koa San Pedro'ri, au 1668n.urtean barriztaua, Gumuzio'ko Santuari, Pardo'koa San Urbano'ri, Izerango'koa Santa Krutzeri, Dudea'koa San Migel'eri, Ibarra'koa San Lorentzo'ri, Elgezabal'goa San Antonio'ri, Arano'koa San Martin'eri, Bediaga'koa San Bizente'ri. Emen egozan illobi batzutatik bat geratu da, Austoa'koa Santa Krutz'eri eta Sarasua'koa San Pedro'ri...”

* * *

Oartu geinken lez 1612n.urtean izan ziran 16'retatik 1785n.'ean 13 geratzen dira. Sinismena galtzen joialako ete zan? Nok jakin!



Bediaga'ko Bixente deuna (zornotza'n)

Arrezkero, 1793'ko orrillaren l'ean Agiriano ta Gomez'tar Frantzisko jaunak gotzain-ikustaldi baten egin-dako auzi-papelean dagon ondorengo autormenean dator jakingarri au: “San Bixete izeneko baseleiza begiztatu dot; altarean ez dot aurkitu kurutzerik; beste dana egoki ta itxuraz dago”.

1847'ko beste ikustaldi baten agirian argibide au dakar: “Dudea'ko Anaidiaren baseleizak ikusi dira, eta guztiak dagoz egoera onean; San Lorentzo'koari arri bat barriztu bear jako”.

* * *

J. E. Delmas'ek “Bizkaia Jaunerrian Bide-erakusle” idaztarian ondorengo au diño: “Amorebieta Eleizalde zaba-lean bananduta baseleiza pillo bat dago eta euretatik bi edo iru guztiz antxiñakoak, onein artean Bediaga'ko San Bizente. Emen oraintsura arte illobi asko izan dira. Zer esan gura dau “illobi asko izan zirala” esateaz?... Izan leiteke 1593-94n.urtean alderdi oneik igaro eben kolera izurriagaitik eriotza asko izan zirala eta ondoren lez arrizko illobiak ipiñi-bearra. 1375 urteko agerbideak orixe agertzen dabe.

* * *

Orain Dudea'ko Anaidia'n zutunik daukaguzan baseleizak oneik dira: San Bizente, barriztuta, San Miguel, San Pedro, San Antonio, San Lorentzo, San Martin eta Santa Krutz.

Amaitzeko, San Bizente baseleiza maitearen barri bat emon bear dogu: Gurtuten dan Bizente Martiri deunaren irudia karlisten azken-gudatik onakoa da; lengoa, auzo-koak diñoenez erre egin zan, gudaldian ain zuzen eleizpean sua emonda eta besoa baiño ez da onik urten sutatik.

EGILUZE'n

**SODUPE TA ARDANTZA
BILLATZAILLE TA BILLATUAK
BION ARTEAN ETA BOK BATERA
EGINGO DABE EUZKADI ZORIONTSUA
LAGUNDU AZ GURE EUSKALKI
EDER GAISO BIZKAIERARIN**

(Letona'k)

EGAZTIAK ALKARTASUN BARRIAN

Ave (Mateo 8, 20)

Las zorras tienen guaridas y las **aves** del cielo nidos.

- Lei: Azeriek zulhoak citié eta zeruko **xoriék** ohatzeak.
 Duv: Hazeriek badituzte zilhoak, eta zeruko **hegastinek** ohatzeak.
 Ol: Azeriek zuloak ta eguratseko **egaztiék** kabiak ba-dituzte.
 E-B: Azeriak euren gordelekuak daukez eta zeruko **egaztiak** apiak.

Gallina eta pollo, polluelo (Mateo 23, 37)

¡Cuántas veces he querido reunir a tus hijos, como una **gallina** reúne a sus **pollos** bajo las alas, y no habéis querido!

- Lei: Zenbatetan bildu nahi ukan ditut hire haurrak **oilloak** bere xitoak hegalen azpira biltzen dituen bezala, eta ezpaituk nahi ukan.
 Duv: Zenbatetan nahi izan ditinat hire umeak bildu, **oilloak** egalpera **xitoak** biltzen dituen bezala, eta hik ez baitun nahi izatu!
 Ol: Zenbatetan zure umeak bildu nai nitun, **oilloak** bere **txitaldia** egapean bezela, eta zuk ez zenun nai!
 E-B: Amaikatxo bidar batu nai izan dodaz, ba, zure semeak, **oilloak** bere **txitak** egapean batzen dauzanez; eta zuek ez dozue nai izan!

Gallo (Mateo 26, 75)

Antes que el **gallo** cante, renegarás de mí tres veces.

- Lei: **Oilarrak** io dezan baino lehen, hiruretan ukaturen nauk.
 Duv: **Oilarrak** jo dezan baino lehen, hiruretan nauzu ukhaturen.
 Ol: **Oilarrak** yo baño len irutan ukatuko nauzu.
 E-B: **Oilarrak** kukurruko egin baño leen, zuk iru aldiz ukatuko nozu.

Paloma (Mateo 10, 16)

Sed, pues, prudentes como las serpientes, y sencillos como las **palomas**.

- Lei: Zàrete, bada, zuhur sugeak bezala, eta simple **usso kolumbák** bezala.
 Duv: Izan zaitetzte beraz, zuhur sugea bezala, eta laino nola **usoa**.
 Ol: Sugeak bezain gurbil izan zaitetzte, ba, eta **usoak** bezain xalo.
 E-B: Sugeak baizen zuurrak izan zaitetze, ba, eta **usoak** baizen lauak.

Tórtola eta pichón (Lukas 2, 24)

Para ofrecer en sacrificio un par de **tórtolas** o dos **pichones**.

- Lei: Eta eman lezatenzát oblazionea, **turturela** pare bat, edo bi **usso kolumba ume**.
 Duv: Eta sakrifiziokotzat emateko, bi **usoaphal**, edo bi **etxusokume**.
 Ol: Ta oparitzat **uxapal** biko bat edo **usakume** bi eskeintzeko.
 E-B: Eta oparitzat, **uso-turtura** bi edo **usakume** bi eskeintzeko.

Pájaro (Lukas 12, 7)

Vosotros valéis más que muchos **pajarillos**.

- Lei: **Parra-xori** araldeak baino gehiago balio duzue zuek.
 Duv: Asko **etxe-xorik** baino gehiago balio duzue.
 Ol: **Txolarre** asko baño gurenagoak zerate zuek.
 E-B: **Txoritxo** askok baño gehiago balio dozue zuek.

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
 kalean (auzoan) zenbakian
 errian, errialdean (probintzian)
 Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-
 txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

EGUN OSPETSUA GALARTZA AUZOAN

Jainkoak gura izan eban, egun ederra, argia, beroa ta alaia bialdutea auzotxoko lurralde orretara.

Etorri bear ziranak, ordurako etorri ziran danak.

Gai onetan be, Galartzako baserritarrak, jarraibide ederra emon euskuen, sasoiz Mezara eldutea.

Amabiak baiño lenago, danok alkartu giñan elizosteko enparantzaxoan, erriko ta erbesteko jentea.

Gauza ikaragarria izan zan, aspaldian ikusi barik, eza-gutu barik, aurkideak izan giñanok, ta orain alkar ezagutu ez.

Ango laztana, barrea, alkar begiratu bearra, agurtzea! Ez genduan sinisten an agertzen zan gauzea.

AMABIETAN MEZEA

Eldu zan egun onetako Zer egiñik AUNDIENA ta aberatsena.

Eliz-maian agertu ziran 6 abade, bost erriko-semeak ta bat erbestekoa, bertako txauburua.

Jainkoari bere onespena eskatuz asi giñan , BENI CREATOR Aretxabaletako abeslariak abestuz.

Gero gozo, samur, itza zuzendu euzkun ZUAZO'tar JOSU'K, gure auzotxoan egun orretan zergaitik batu giñan esanez.

Ez zala bakarrik egun alai bat igarotearren, alkar eza-gututeko baiño, ta batez ere, geure zer-eginetan aurrerantzean laguntzeko, geure zer egiñak zuzen eroan daiguzan.

Onelan asi zan mezea. Aretxabaletako abesbatzeko abeslariak atsegindu euskuezan euren abes ederrekin, mezako zati batzuk.

Ebangelio ostean ON LEANDRO ZALONAK itzaldi eder bar egin euskun.

Eguneko Ebangelioak diñoskun bezela alkarri lagundu bear dautsogula edozein sasoiñan ta mundu onetan bizi bear dogula bestearen ardurak, geureak bezela artuta.

Meza au, an aurkituten garenokaitik ez dala bakarrik, gure aurrekoakaitik be bai.



Umetatik lagun diran Galartza'tar batzuk: *Zutunik* Julian Zaloña, Isidor Etxeberria, Eujenio Zuazua, Juliana Otxoa ta Damaso Zuazua *Belauniko*: Prudentzio Garai eta Jesus Zuazua.

AUZOAK

Eurek JARRIBIDE on-onak gai guztietan emon euskuezalako: lanean, zintzotasunean sinis-bidean ta abar.

Zor aundia daukagula eurentzat, oraingo aurrerapena ta ondo bizitea daukagula aren lan ta izerdiakaitik. Eurak itzi euskuen bide ona, zabala, orain ondo bizitzeko.

Izlarien ostean, erriko-seme batek, argi ta zoli bertso egokiak abesta euskuzan egun onetako gaiari buruz.

Danok meza ori entzun genduan oneraspen ta aditasunik aundienagaz.

Bertatik urten genduan sendotuta, berotuta, asmo bizi-bizi bat artuaz aurrerantzean sinismen sutuagoaz geure kristinautasunari jarraituteko.

MEZAREN ONDOREA

Meza-ostean, barrero enparantza txikian alkartu giñan.

Egun onetako oroipen bat eukiteko, argazki batzuk egin ziran. Lehengo erbestetik alkartu giñanok ta gero nai izan eben erritar guztiak.

Galartzatarrak gauzak ondo egiten dakie, ez eben itzi aiztuta ezer.

Aintxinetik edantegi txiki bat dago ta bertan gertatu euskuen danontzat, amaiketako txukun bat. Andik danak

urten eben alai, bero ta mintzatzeko gogoagaz. Itzak errez urtetan eben.

Ez dakit nortzuk izan ziran gertatzailleak baiña, ezin obeto maira etorri ziran. Errioxako arda bikaiña izan zan bultzatzaillea.

Sukaldariei, serbitzaillei, guztiei ESKER ONA, olako egun ederra igaroten lagundu euskuenei.

Gorago diñodan lez Aretxabaletako abeslariak etorri ziran mezako zatiak abestuten, ta ederki egin eben. Aretxabaletan beti izan dira abeslari onak. Bat aitatuteko, ALTUBE, Milaneko Eskalan abestuten ebana, ta bein Elorrioko eliznagusian entzun neutson AVE MARIA bat kantatzen antzokian bezela 1928 garreneko uztaillaren 4 an.

Eleizea apaindu egin eben guztiei eskerrak, ain ondo itzi ebelako.

Danori biotz-biotzetik ESKERRAK. Jarraitu egizue olako OITURA ederretan, egun batean danok aukitu gaitazan an goian betiko alaitasun ta zorientasunean AGUR Galartzatar guztiei.

ETXEBERRI'TAR ISIDOR

MEZATAN BERTSOTAN

1. Galartzako lur emankorretan jaio zen lore gaztea, aalegindu da berpizten ainbat lur bizirikan gabea gizonak leendik zitun zidorrez egin nairikan bidea gaindituz gaiso dan erriaren negar malkoen nekea erabakirik bizi oso bat orrela eramatea auzoko seme taldea etsipenikan gabea. Kide guzien izenean nik ez det errez esatea sor dizuegun denen beroa itzez adieraztea.

2. Zuen pausoak une zailletan aurera nairik eraman, odol tanto ta negar malkotan, beti egin dezute lan. Itz bat zabaldu, gaisoak senda, naiz aur bati jaten eman, sarri ikusteko nola aizeak lan guzti ori daraman. Zuek zeraten iturri ortatik geiagok nai luke edan, azken urteen boladan gu ere nola gaizki geran, euskal zugaitza nola naikoa okerra ikusten detan, zalantzan nago zuen uraren bearrikan ez ote dan.

3. Ikusiz nola aizeak urte bolada bat daramala, zuen lanaren fruituak jaso dituzue bereala, erakutsirik biotz ona ta eskainiz esku zabala, aman eskutik urruti txori egalariak bezala orain berriro ikusi nairik zuen otartxo apala, bide zaar bat seiñala, aidera bota egala, unetxo batez utzirikan an egindako lan leiala, auzoak jaso nai zaituzte eskañiz bere magala.

FELIX INURRATEGUI
(Galartza'tar Bertsolari gazteak)

IPUINAK APAINTZEKO MARGOZKIEN SARIKETEAK

"Euskerazaleak Alkartea"k, euskaldunen artean apainketarako marrazkiak egiteko zaletasun aundirik ez dagoala ikusirik, margolarien edo lan onetarako zaleak diranen artean sariketea egitea asmau dau.

Euskerazaleak Alkartearen Etxean (Colón de Larreategi 14, 2.^a, eskoia) ikusi daitez marrazkiak argitaratu nai diran ipuiñak txorta baten. Ipuin oneik argitaratzeko liburuaren azala eta barruko apaingarriak marraztuko dauzan ertilaria edo orretarako zaletasuna daukana billatzen da.

Marralariak berak asmau bearke dau marrazkien neurria, margoak, zenbakia ta dana, ipuin bakoitxarentzat bat, naiz bi, naiz iru izan daitezkezala, neurria zelakoa dan.

OINARRI-ARAUAK

1. Marrazkiak, 1985'ko urterilaren 31'rako, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean izan bearke dabe.
2. Marrazkiak izen ordeaz ezaugarrituko dira eta karta-azal baten barruan ekarri bearke da ezaugarri dan izen-orde ori eta benetako izena ta zuzenbidea.
3. Saria bat bakarra izango da, 100.000 pezetakoa.
4. Saridun marrazkiaren jabe EUSKERAZALEAK ALKARTEA geratuko da.
5. Ipuiñak euskal-girokoak diran ezkeru, marrazkiak be giro orretakoak izan bearke dabe.
6. Saria irabazteko gai dan lanik bat be agertu ezik, iñori emon barik geratuko da saria eta aurkeztu diran lanak jabeen esku geratuko dira.
7. Epai-Maiaren erabagia 1985'eko zezeillaren barruan agertuko da DEIA Izparringian eta ZER aldizkarian.

EUSKERAZALEAK marrazkiak aurkezteko epea amabost egun luzatzea erabagi dau Zezeillaren (Otsaillaren) 15'ean izango da ba, lanak aurkezteko epearen azken-eguna.

EUSKERAZALEAK

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez darioan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.